

Louis Aragon

«Gelak. Igarotzen ez den denboraren olerkia» liburutik ateratako sei olerki



(Liburuaren jatorrizko izenburua : «Les Chambres. Poème du temps qui ne passe pas»)

GELA GOGORA DATORKIT GELA BAT BERDIN DA ZEIN

GELA EZ

Ez du axola zeinek baina honako-
Hau ez dakit non ez dakit noiz baina
Honako hau ospitale ilun batean mendian non zuhaitzek
Berde eta beltz lehioa estaltzen duten
Gela bat non den-dena baita iragandako hautsa deusik
Ez da zutik gelditzen ez aulkiak
Ez apaintze-mahaia mahaitxo bat tapiza trabeska
Eta ohe altua edredoi higatuduna estalki zuriarekin
Bere borlarik gabeko mendelarekin

Nolatan maite dugun maite dudan nik behintzat
Gela hau.

Noiz bada zein mendetan zein urtetan
Mugitzen ez den erlojuaren antzera esan daiteke zein ordu eta
zein minutu den baina
Zein mende zein urtaro den
Ba ote dago jakiterik

Zure zapatak besaulki baten ondoan artega
Arropa lurrean erorita
Den-dena da zurrumuru ikaragarria izanaren mugan
Neke zoro eta gozoa loaren bazterrean
Kanpoan norbaitek hizketan dihardu eta hori da isiltasuna

Agian egunen batean agian pentsatu nuen agian
Gela honetaz gogoratuko gara beste nonbait
Ez du axola non ene maitea mundutik kanpo

Pentsatu nuen berriro gogoratuko gara Aldarri-hiri
batean Hondartza baten ertzean non itsasoa poliki hiltzen den
Izpi gorriko eguzki bortitzeko herrialde batean
Alemaniako lekuren batean edo estatua-herri horretan
Basoetako mugan Pentsatu nuen
Eta horra gaur berriz sentitu dut erorketa hau
Harri baten ohantze zaharraren hondoan eta oso urrun

Oihua

JE REVOIS LA CHAMBRE UNE CHAMBRE N'IMPORTE QUELLE

CHAMBRE PAS

N'importe quelle mais celle-
Ci je ne sais où je ne sais quand mais
Celle-ci dans un hôpital sombre à la campagne où les arbres
Aveuglent la fenêtre verts et noirs une
Chambre où tout est poussière passé nuit rien
Ne tient sur ses pieds les chaises ni
La table de toilette un guéridon le tapis de travers
Et le haut lit d'édredons passés avec la couverture blanche
Sa frange aux pompons arrachés

Comme nous l'avons du moins je l'ai cette chambre
Aimée

Quand donc quel siècle quelle année
Tout comme une horloge immobile on peut en dire l'heure et
la minute mais
Quel siècle quelle saison
Sait-on bien

Tes chaussures près d'un fauteuil inquiètes
Le ling à terre glissé
Tout n'est plus qu'un murmure énorme à la limite d'être
Une fatigue folle et douce au bord de dormir
Quelqu'un parle au dehors et c'est là le silence

Peut-être un jour peut-être j'ai pensé peut-être
Nous nous ressouviendrons de cette chambre ailleurs
N'importe où mon amour hors du monde

J'ai pensé nous nous ressouviendrons Dans une ville de
clameurs Au bord d'une plage où la mer lentement meurt
Dans un pays de violent soleil sur des carreaux rouges
Quelque part en Allemagne ou dans ce pays de statues
A la limite des forêts J'ai pensé
Et voilà qu'aujourd'hui je sens à nouveau cette chute
Au profond du lit ancien d'une pierre et très loin

Le cri

<p>NIRE BIZITZAKO GELA GUZTIEK Irato naute euren hormen artean Hemen zurrumurrak ito egiten dira Oihuak apurtzen</p> <p>Urrats luze hutsekin Bakarrik bizi izandako gelak Euren Espekto zaharrak gordetzen dituztenak Indiferentziaren gelak</p> <p>Sukarreko gelak eta beste hura Nik neuk atondu nuena hoztasunez hiltzeko Plazer alokatua Gau arrotzak</p> <p>Zauriak baino ederragoak diren gelak Hutsalak irudituko zitzaizkizuen gelak Erregu-gelak Argi baxuko gelak Edozertarako prest dauden gelak, zorionerako izan ezik Niretzat betiko diren gelak nire odolez Zipriztinduta</p> <p>Gela guztietan egun batean suertatzen da gizona Bizirik larrutua Belauniko erortzen da errukia eskatzen du Zezelka hasi eta edalontzia bezala iraultzen da Eta bat-batean denboraren oinaze ikaragarria Derbitxe geldo biribila da denbora biraka eta biraka beti Begi zirkular batez begiratzen diola Bere patu zatikatuari Eta angustiazko zarata txikia Orduak eta ordu-erdiak baino lehen Inoiz ez dakit nire heriotza iragarri behar ote duen Gela guztiak justizia aretoak dira Hemen nire neurria badakit zein den eta ispiluak Ez nau barkatzen</p> <p>Gela guztiak azkenean lotan gelditzen naizenean Nire aurka didate ametsen zigorra jaurki</p> <p>Ez baitakit zer den okerragoa amestea ala bizitzea</p>	<p>TOUTES LES CHAMBRES DE MA VIE M'auront étranglé de leurs murs Ici les murmures s'étouffent Les cris se cassent</p> <p>Celles où j'ai vécu seul À grands pas vides Celles Qui gardaient leurs spectres anciens Les chambres d'indifférence</p> <p>Les chambres de la fièvre et celle que J'avais installée afin d'y froidement mourir Le plaisir loué Les nuits étrangères</p> <p>Il y a des chambres plus belles que blessures Il y a des chambres qui vous paraîtront banales Il y a des chambres de supplications Des chambres de lumière basse des Chambres prêtes à tout sauf au bonheur Il y a des chambres à jamais pour moi de mon sang Éclaboussées</p> <p>Toutes les chambres un jour vient que l'homme s'y Ecorche vif Qu'il y tombe à genoux qu'il demande pitié Qu'il balbutie et se renverse comme un verre Et subit le supplice épouvantable du temps Derviche lent le temps est rond qui tourne sur lui-même Qui regarde d'un oeil circulaire L'écartèlement de son destin Et le petit bruit d'angoisse avant les Heures les demies Je ne sais jamais si cela va sonner ma mort Toutes les chambres sont chambres de justice Ici je connais ma mesure et le miroir Ne me pardonne pas</p> <p>Toutes les chambres quand enfin je m'endormis Ont jeté sur moi la punition des rêves</p> <p>Car je ne sais des deux le pis rêver ou vivre</p>
---	--

BIZITZAKO GELA GUZTIAK AZKEN BATEAN HORIXE DIRA

Iraulitako kaxoiak Bizitzako
 Gela guztiak eta isilpean uzten
 Ditudanak gela guztiak orain
 Muturik eta hala ere
 Horma guztiak xuxurlaka hitzik gabe leihoak
 Hilda

Hau idazten dudan lekuan ere berdin egunsentian askoz
 Beranduago
 Txoriz jositako isiltasunean

Gelak gutun urratuak
 Amataturiko oihuak baino ez dira geratzen Izanaren
 Desordena izatearen desordena beti Egun batetik aurrera
 Bizitzea bizirik irautea baino ez da
 Irrigarrikiro gogoa deitzen dugun desordena hau baino ez da
 Beste inork ez ditu hemen gauzak bere lekuan
 Jarriko inoiz ez Gauza guztiek
 Galdua izango dute niretzat bakarrik zeukaten zentzua
 Denborak den-dena sakabanatzen du ispiluen hondoraino
 Aurrerantzean ezerk ez du esanahirik izango Are okerrago
 Izan ginenontzat Biharko
 Haurrek beste zerbaiti buruz hitz egingo dute euren ahots
 freskoekin

Ahazteko idazten dut nire urratsetan idazten dut
 Nire urratsak ezabatzeke Ni neu ere
 Galtzeko eta bertso hauek ez daitezela
 Deusik izan isiltasunaren obertura baino

Bihotza betidanik lantzen didan haiztoari ez diot berriro entzun
 Nahi.

Barkaidazue zuei esateagatik eta gaizki sentitzeagatik baina ederki
 Dakit gaizki sentitzea saihestezina dela
 Hala ere zuengatik batik bat sentitzen naiz gaizki geroko
 gizasemeok
 Ez ordea dirudien edota lirudikeen bezala.

Egunkaria munduaren zoritxarraren gainean egunero
 Zabalduko ez dudan eguna etor dadila ene Jainkoa
 Ederki dakusazue alde guztietatik zaurituta natorrela
 Dagoeneko Lekurik
 Ez dago jada beste zauri baterako
 Barkaidazue

Ez da gehiago aurkituko gelarik Etxeak
 erraustuak izango dira gaur dakiten moduan
 Erraustu ez dezala ezerk iraun ezta oin baten
 Arrastoak ere
 Ez faraoien mende azpiko loan
 Bezala ez geologietan bizi izandako
 Izaki baten hutsuneak ere

O etortzekoa zaren baretasun miresgarri hori hasi
 Barre handi baten modura ni nengoen lekutik
 Ekortu ekortu leku guztietatik nire itzala eta nire lastoa
 Haize urrikalkor horiek ekortu
 Nire arnasa eta nire hitza

Ez da hilobirik gehiago eraikiko
 Ez da hil-abestirik gehiago izango
 Basakeria ooren amaiera izango da

O, zeinen garbia eta hutsa izango den zerua
 Gure ausentziaren gainetik eta denborak
 Inon ez du erlojurik izango
 Ederra izango da

Ederra edertasun paregabe horrekin
 Non ezer ez baitago margotuta den-dena ez izanik oihalaren
 Zuria baizik Ederra

TOUTES LES CHAMBRES DE LA VIE AU BOUT DU COMPTE SONT

Des tiroirs renversés Toutes les
 Chambres de la vie et celles dont
 Je ne dis rien toutes les chambres maintenant
 Muettes et pourtant
 Murmurantes tous les murs sans mots les fenêtres
 Mortes

Même où j'écris ceci dans l'aube très longtemps
 Après
 Dans le silence plein d'oiseaux

Les chambres lettres déchirées
 Il en reste des cris éteints le désordre d'avoir
 Été le désordre toujours d'être À partir d'un
 Certain jour vivre n'est plus jamais que survivre
 Plus jamais que ce désordre appelé dérisoirement mémoire
 Personne ici ne remettra plus les objets
 À leur place plus jamais Tout
 Aura perdu le sens qu'il avait pour moi seul
 Le temps disperse tout jusqu'au fond des miroirs
 Rien désormais ne signifiera plus rien Tant pis
 Pour nous qui fûmes Les enfants
 De l'avenir vont parler d'autre chose avec leurs bouches
 fraîches

J'écris pour oublier j'écris dans mes pas
 Pour effacer mes pas pour
 Me perdre et que ces vers ne soient
 Rien qu'ouverture du silence

Ne plus entendre le couteau depuis toujours qui me travaille
 Le coeur

Excusez-moi de vous le dire et d'avoir mal mais je sais bien
 Qu'avoir mal est tout à fait inexcusable
 Cependant c'est à vous que j'ai mal mais mal gens de plus
 tard
 Et non pas comme il semble et semblera peut-être

Dieu que vienne le jour où je n'ouvrirai plus
 Le journal tous les jours sur le malheur du monde
 Vous voyez bien que je suis blessé de partout
 Déjà Nulle part
 Il n'y a place encore d'une plaie
 Excusez-moi

On ne retrouvera plus les chambres Les maisons
 Seront démolies comme on sait maintenant
 Démolier que rien n'en subsiste pas la trace
 D'un pied
 Pas comme sous les siècles le sommeil
 Des pharaons ni dans les géologies
 Le creux d'un être qui vécut

Ô calme merveilleux qui vas venir commence
 Comme un grand rire de la place faite où j'étais
 Balayez balayez partout mon ombre et ma paille
 Vents de miséricorde balayez
 Mon souffle et ma parole

On ne bâtira plus de tombeaux
 Il n'y aura plus de chants funèbres
 Ce sera la fin de toute barbarie

Oh que le ciel sera propre et pur au-dessus
 De notre absence et le temps
 Nulle part n'aura d'horloge
 Il fera beau

Beau de cette beauté sans pair
 Où rien n'est peint tout n'est que blancheur
 De la toile Beau

BEGIRATZEN DIDAN ETA NAHIGABETZEN DEN ISPILUA

URTEEN HISTORIA IRAKURTZEN DU NIGAN

Umore txarreko gizonaren kopetan eguzki-denboraldi batek tatuatzen duen alfabeto isil hau

Ispilu grisak
bakarrik deszifratzen du nire historia
Gogorgunez beteriko nire zainetako sekretuetan
Izango luke zer kontaturik zeren irakurrita baitauka abendu-aldiak
haragi barruraino nola sartzen zaizkidan

Ispilu grisak nekez gogora ditzake ikusita dauzkan
zoritxar guztiak

Horiek finkatzeko hitzak falta zaizkio ahotsa falta zaio
Ni harentzat gelako zehazkizun bat baino ez naiz malko bat
haren begitartean

Malko astun-astun bat luze eta geldiro begitik zuzenean erortzen
behar den legez

Ispilu grisak gauza asko eta asko dakizki nire kontura Dagoeneko
ez da ezertaz harritzen

Beste inork baino hobeto ikusten nau biluzik intxaur barruko gizona
igartzen du bere txabolan urduri mugitzen den

Txakurraren antzera nire ametsetan ditudan izuikara
lausoak igartzen ditu

Ohetik zintzilik gelditu den beso horretan igartzen du
zerk marruskatzen eta karraskatzen nauen barrutik

Lotan ote nagoen galdegiten dio bere buruari
eta zerk eragiten duen horrelako ahuenan
nire pentsamenduan

Gaur gauean asperturik dago Nitaz ez ditu espero
zentzugabekeriak baizik

Horra ez dit aditzen jada eta heriotzarekiko beldur
itsu, bat-bateko batek hartuta

Nire arnasaren lausoa betiko galtzeko beldurrez, buelta eman eta lotan den
Elsa espiatzen du

LE MIROIR QUI ME REGARDE ET S'AFFLIGE

IL LIT SUR MOI L'HISTOIRE DES ANNÉES

Cet alphabet sourd qu'un temps solaire tatoue au front de
l'homme mal luné

Le miroir gris
déchiffre seul mon histoire
Aux secrets nouveaux de mes veines
Il en aurait à dire ayant lu comment dans ma chair se
creusent les avens

Le miroir gris a bien du mal à se souvenir de tout le malheur
qu'il voit

Il lui manque les mots pour le fixer il lui manque la voix
Je ne suis qu'un détail de la chambre pour lui qu'une larme
sur son visage

Lourde lourde larme longue à lentement tomber droit de l'oeil
selon l'usage

Le miroir gris en sait tant et tant sur mon compte Il ne
s'étonne plus de rien

Il me voit nu mieux que personne il devine l'homme dans la
noix comme un chien

Qui bouge dans sa niche il le devine aux vagues sursauts que
j'ai dans mes songes

Devine à ce bras qui pend du lit tout à coup ce que me mine
et qui me ronge

Il se demande si je dors
et ce qui peut ainsi gémir dans ma
pensée

Cette nuit il s'ennuie il n'attend guère que de moi des choses
insensées

Voilà qu'il ne m'entend plus et pris soudain d'une peur
aveugle de la mort

Craignant n'être plus terni de mon souffle il se détourne épie
Elsa qui dort

BETOR GORROTO DIDANA ETA HIL NAZALA

Eskerrak emango dizkiot nire odol guztiarekin

Batzuen iritziz hiltzeko orduan oroimenak
Bizitzari ematen dio errepasoa
Barkaidazue proba hau barkaidazue
Azpikoz gorako denboraren proba hau
Zer egin diot zeruari gogoratu-beharra izateko

Alderrai ibili besterik ez dut nahi garai demonio hauetako geletan
Ateak zabaltzen dizkiot gure arteko isiltasunari
Iraganari dantzuot txarro pitzatu batetik ihes egiten
Eta loreari zimeltzen urik ezean lurrinari bere lohian
ezabatzen
Zure besoetan ahanzturazko zure beso bikietan egotea baino ez dut behar

Aulki batean botatako arropadun gelak
Gaur gauean ez dut galdutako zapata bilatuko
Mahai gainean zain ditudan gutunak ez ditut irekiko
Nire ezpainak zure lepoan gau zaharretako negar-zotinak amatatzen
Gelak non lagatako altzariak baino ez baitira jada mintzatzen
ilunean

Bidaiaren amaiera dugu hurbil Zaldiek
Ezin dute gehiago Kaskabiloak ere
Itzali-hurren
Zeinen luze eta motel joan zitzaidan dena
Nire urteak belauniko ibili ditut
Odola darie nire bideei

Gure inguruko paisaian dagoeneko
Zuhaitzik ez urrikoa bakarrik
Mende honetaz negarrak baino ez dira aditzen Beraz
Ezer ikaragarriagorik ezin izan dugu egin
Martiria eta eraiketa ikustea baizik
Oihu egin dut halere oihu
O zure hatz samurrak nire ahoan
Ez naiz nitaz erruki enetxo baizik-eta
Besteetaz kazkabarrak gogor astindu ta zulatutako gariak
Eta deusik ezin egin laurdenkatua izatea besterik
Orain badakit gauzak poliki-poliki
Nola aletzen diren
Inguruan ez zaigu ezer gelditzen amaitzeaz inoiz amaitzen ez den
Begiradaren lanbro hau baizik
Zeintzuk dira ordea azken-azkeneko hitzak
Zeinen ostein ez dagoen ezer eta bihotza jelatzen den
Jendearen urrats presatiak ez ditut aditzen jada
Atezainak ez dizkit arratsaldeko egunkariak igo

Ah ez urrundu ez geratu lotan harik-eta funtsezkoaren berri
Azkenean zuri eman arte Kontatu
Behar dizut
Bizitza osoko sekretu hau ordu honetantxe
Nire ezpainen arnasa aitortzaren hegal zurbil
Taupaka ari zaigunean eta hitzen pisurik gabeko
Lore-hautsa sakabanatzen denean

Ez dut izango ez nukeen azkenean astirik izango dakidana
azkenean dakidana esateko Hartara jarri naiz
Neronen bukaeran oh denbora
Galdua ongia eta gaizkia
Bereizteko denbora horren berandu
Abiatu izanaren denbora
Oihala

Apurtuta Ito
Egiten naiz

Bizitza azken finean orain badakit zer izan den
Ene maitea
eta zer dagoen ondo sinesten
Saihestea eta sinesten

QUE CELUI-LÀ QUI ME HAIT VIENNE ET ME TUE

Je lui dirai merci de tout mon sang

On prétend qu'à l'heure de mourir la mémoire
Passe la vie en revue
Épargnez-moi cette épreuve épargnez-
Moi cette épreuve du temps renversé
Qu'ai-je fait au ciel pour devoir m'en souvenir

Je ne veux qu'errer dans ces chambres des temps damnés
J'ouvre les portes sur le silence de nous
Jécoute le passé fuir d'un vase fêlé
Et la fleur se flétrir par défaillance d'eau s'effacer le parfum
dans sa fange
Il ne me faut qu'être en tes bras tes doubles bras d'oubli

Chambres des vêtements jetés sur une chaise
Ce soir je ne chercherai pas le soulier perdu
Je n'ouvrirai pas les lettres qui m'attendent sur la table
Ma lèvre à ton épaule étouffe les sanglots d'anciennes nuits
Chambres où ne parlent plus que les meubles abandonnés à
l'ombre

Nous arrivons au bout du voyage Les chevaux
N'en peuvent plus Même les grelots
S'éteignent
Que tout me fut et long et lent
J'ai marché sur les genoux mes années
Mes chemins saignent

Le paysage autour de nous n'a plus
D'arbres que de pitié
Il ne s'entend que sanglots par le siècle Ainsi
Nous n'aurons rien pu faire épouvantablement
Que voir le martyr et le meurtre
J'avais cru portant j'avais cru
Ô tes doigts tendres sur ma bouche
Ce n'est pas moi que je plains mon enfant mais
Les autres le blé troué battu des autres sous la grêle
Et de ne rien pouvoir qu'en être écartelé
Maintenant je sais comment les choses peu
À peu s'égrènent
Il ne reste autour de nous que cette brume du regard
Qui n'en finit plus d'en finir
Quelles sont pourtant les paroles dernières
Après quoi rien n'a place et le couer est glacé
Je n'entends plus déjà les pas pressés des gens
La concierge n'a pas monté les journaux du soir

Ah ne t'éloigne pas ne t'endors pas avant que je te dise
Enfin l'essentiel il faut bien te
Le dire
Ce secret de toute la vie à l'heure où
L'air de ma lèvre encore entre nous palpite
Des ailes pâles de l'aveu et se disperse
Le pollen sans poids des paroles

Je n'aurai pas je n'aurais pas eu le temps de dire enfin ce que
je sais ce que je sais enfin Je m'y suis mis étant
À la fin de moi-même oh le temps
Perdu le temps de reconnaître
Le bien du mal le temps d'être si
Tard commencé
L'étoffe

En pièce J'en
Étouffe

Vivre après tout je sais enfin ce que ce fut
Mon amour
et ce que c'est bien qu'on évite
De le croire et qu'on refuse

<p>Errefusatzea eta bat hiltzea Sinetsi gabe</p> <p>Baina zer da bat-bateko trosta hau nire buru barruan Bertso-lerro alexandrotarren garraiaketa hau nire gogoz bestera Pentsamendua zapaltzen didaten eskalapoï hauek Lokiak jotzen dizkidaten Burdina hauek Igarotzen den denbora da denbora Ezin igarotzea gehiago jasaterik ez daukan Denbora Amaiera guztien amaieran igarotzen den Denbora.</p> <p>Bizitza azken batean esatera nindoan baina Badut astirik oraindik badut adina paper Idatziz jartzeko paperezko denbora Hitzen minutuak Bizitza azken batean</p> <p>Bizitza azken batean sekula ez baitzen izango Amaigabeko akats judizial bat baizik eta ni bizi izan naiz Hauxe esateko erantzunik gabeko instantean Behintzat erantzunik gabeko instantean hauxe esateko Inork besterik ezin duenean ezereza aldarrikatzea baino</p> <p>Aditzen nauzu aditzen nauzu baina akaso Dagoeneko muturik nago eta hitzak nigan Dagoeneko hilak dira aditzen nauzu</p> <p>Holaxe da Dio aurpegirik gabeko ahotsak</p>	<p>De le croire et que l'on meure Sans y croire</p> <p>Mais qu'est-ce tout à coup ce galop dans ma tête Ce charroi malgré moi de vers alexandrins Ces sabots qui me piétinent la pensée Ces fers martelant Mes tempes C'est le temps qui passe le temps Le temps qui ne supporte plus de ne pas Passer Le temps à la fin des fins Qui passe</p> <p>Vivre après tout j'allais le dire mais Le temps m'en reste-t-il ai-je encore le papier Nécessaire à le dire le temps de papier Les minutes des mots Vivre après tout</p> <p>Vivre après tout n'aura jamais été qu'une Interminable erreur judiciaire et j'ai vécu Pour le dire à l'instant sans réponse Au moins le dire à l'instant sans réponse Où personne ne peut que crier le néant</p> <p>M'entends-tu m'entends-tu mais peut-être Que je suis déjà muet que les mots en moi Déjà meurent m'entends-tu</p> <p>Il est exactement Dit la voix sans visage</p>
--	--

<p>OSO BERANDU EGUNEAN EDO URTEAN EZ Gaeuan edo urtaroan ez</p> <p>Oso berandu nekerako edo loreentzako ez Lotan gelditzeko edo garia mozteko ez</p> <p>Oso berandu gutaz oso berandu bizitzeaz Eta paisaiaren barrenean dar-dar dagi jada muturreko Minutuak</p> <p>Eguzki-loreen lurrinetatik askoz gorago Geldi non ordua ikaraz dagoen Harri-etxea harrien artean</p> <p>Zuhaitza ere geldi haizeak makurtuta Udako zelaiak ahitze-bidean</p> <p>Begiak dakus hain urrun ze argia aienatzen denean galtzen baita Garagar-mendiak Sute-usaina darienak Gu baino beherago barraskilo lizundu bati igota Gizonak euren kui-teilatu zimelduen azpian Ezkutatu egiten dira baina gorago zure bihotzaren Behin-behineko erresuma hedatuz doa niretzat Dantzuot taupaka dantzuot Lehenago edo geroago Nire besoen neurrira ingurutzen Zaizun etxea Besterik ez Sargori egunetako freskura egiten du Bertan</p> <p>Oso berandu</p> <p>Emakume gaur zure emakume-izenik ederrena ematen dizut Hemen gure une honetako miresgarri horri muinoetako Fruitua bezain zakar eta gozoa den Espainiako izen batekin deitzen zaitut Eguzki- eta isiltasun-fruitua Haize eroriaren izena ematen dizut kafe-usainari Bet-betan antzeman ta biluzik egotearen izena Eta oro ez da irakurri-itxura baizik ganberetan Non gauza bakoitza finki zure eskuak noiz pasako zain dagoen Ene maite nik gaur Bakardade izena ematen dizut</p> <p>Oso berandu</p> <p>Horratx bakarrik egotea pluralean idazten da masusta sasi artean bezala Erdibanaturiko amets baten odol beltza Bakardade diotsut eta zuk nigana bihurtzen dituzu Naturaltasunez zure begi mortuak Barkarde diotsut Eta horra zu inongo herrialde bateko banderaren gisa bere mastan Horra zu tontorretako ene txoriño ene txori geldia hegalak zabaldurik Horra zu inoiz ikusi gabeko zeruertzearen pare Zure arimaren Urratsak zelatatu eta ardo arinaren izen berria ahoskatzen dut Bakardade ikusten al duzu zu zara nire Bakardade</p> <p>Nire ezpainetara oso berandu heldu den izen hau Airez bete egiten den izen hau honez gero Zu harritu gabe</p> <p>Izen hau horren berandu gure harridurarako Jendeak inoiz eman dizkizun izen guztiak baino samurragoa Eguna igarotzera doa inor etorri gabe Infinituraino isiltzera doa gure inguruan Entzuiuozu hitzik gabe bere egunezko ahoan hatz bat jarrita Tronpaturiko minutu guztiak ahapeka zizakatzen Eguna badoa jantzi bat zure oin ondoan erortzen den bezala Lanbroa txuri jaiotzen da hondo urdinetan Begiak nonahi begiak pizten dira Eztarrian beheran gurrpil-zarata bat Gelditzen da</p>	<p>TRÈS TARD NON POINT DANS LE JOUR OU L'ANNÉE Non point dans la nuit ou la saison</p> <p>Très tard non pour la fatigue ou pour les fleurs Pour s'endormir ou pour faucher les blés</p> <p>Très tard de nous très tard de vivre Et déjà tressaille au fond du paysage la minute Extrême</p> <p>Tout en haut des parfums d'herbes solaires Immobile où tremble l'heure La maison de pierre dans les pierres</p> <p>Immobile aussi l'arbre courbé de vent Les champs de l'été se consomment</p> <p>L'oeil voit si loin qu'il se perd où la lumière évanouit Les monts d'orgeat De qui l'odeur est d'incendie Plus bas que nous perchés sur un escargot rouillé Des hommes sous leurs toits fanés de courges Se cachent mais au-dessus s'étend pour moi Le royaume provisoire de ton coeur Écoute je l'écoute battre Tôt ou tard La maison qui t'entoure à la mesure De mes bras Rien d'autre Il y fait la grande fraîcheur des temps Torrides</p> <p>Très tard</p> <p>Femme je te donne aujourd'hui ton plus beau nom de femme Ici ma merveille à ce moment de nous je t'appelle D'un nom d'Espagne âpre et doux comme un fruit des collines Un fruit de soleil et de silence Je te donne le nom du vent tombé le nom D'être nu d'ouvrir l'épaule à l'odeur du café Et tout n'est que semblant de lire dans les pièces Où chaque chose à sa place attend le passage de tes mains Mon amour je te donne aujourd'hui le nom de Solitude</p> <p>Très tard</p> <p>Voilà que d'être seul au pluriel s'écrit comme aux ronces la mûre Ce sang noir d'un songe partagé Je te dis Solitude et tu tournes vers moi Tout naturellement tes yeux déserts Je te Dis Solitude et te voilà comme un drapeau de nul pays á la hampe Te voilà mon oiseau des cimes mon oiseau sur place étendant tes ailes Te voilà pareil à l'horizon jamais vu je guette les pas De ton âme et je dis le nom nouveau de vin léger Solitude vois-tu c'est toi ma Solitude</p> <p>Ce nom qui t'es venu très tard sur mes lèvres Ce nom dont l'air entier s'emplit sans plus T'en étonner</p> <p>Ce nom très tard à l'arrêt de nous-mêmes Plus tendre que tous les noms jamais que les gents t'ont donnés Le jur va se passer sans qu'il vienne personne Il va se taire infiniment autour de nous Écoute-le sans parole un doigt sur sa bouche de jour Balbutier tout bas les minutes trompées Le jour s'en va comme une robe à tes pieds tombe La brume naît dans les fonds bleus blanche Les yeux partout les yeux s'allument Dans la gorge en bas un bruit de charrette S'arrête</p>
--	---

